# SARRERA

## Juan Garmendia Larrañagaren liburuarentzat, *Euskal esku-langintza* *

Leendik datorkigun erribizikera, sinismen eta oikundeak dire etnografilarien gaiak. Gure ezikeren oñarri dire. Bizibearrak eta gure izaera onen jokera ikasinaiak sorrerazten dizkigu.

Iñork gai ontan ikaskuntzen goimaillara igo gura ba-du, naiz eta gizaartearen alderdi soil bat ortarako auta, toki askotan ateak jo bearko ditu. Euskalerrian balitz, auzune asko, sakabanatuak, aztertu bear.

Errialde askotan bezela, emen ere lan-molde, oitura eta buruzpideak XIX-n mendeaz gero, aldaketa bizian dabiltz. Oien ikerlariak ibili bitez laster, leengo oikunden azken-susmurruak bederen entzun nai badituzte.

Zorionez Garmendia jauna garaiz oroitu da. Gogamen argi eta zuzen eratua bai du, eskulanetan antzetsu direnen lantegietan ibiliaz, ango berrien jabe egiña da. Beoiek emen agertuaz, euskal-etnografiari aurreruntz bulka egin dio.

Garaiz iritxi dala, ez da zer esanik. Errietako eskulangintza ba-dijoa: erioa dabil inguruan. Liburu onen egilleak ala ikusi du. Alaz ere, lantegi askoren gora-berak aztertu al izan ditu eta emen erakusten dizkigu.

Zurezko ontziak, emen aspalditik erabiliak; nere ustez, Paleolitos-aroaz gero: ala esan nuen aldi batez (1). Gure gaztearoan artzai eta ikazkiñak zerabillen *txalia,* burruntzalia baño zaarragoa degu, naiz eta burruntzalia aspaldikoa izan: izenak berak ala adierazten digute.

Eliz-argizagiak —illari edo ilobietakoak— illen omena adierazten digu: ortarako erabilli ere dute gure aurrekoak, edesti-aurretik gaurdaño. Ori ere badijoa.

Golda —lurra erabiltzeko lanabesa— burdinaroa ezkero emen dabil. Ez dakigu nun ikasi zuten lenengoz bere berri gure aurrekoak; bañan emen zerabilkiten golda bertan egiña zutela esan gentzake.

Laya, txistarrazia (aultzia, estrazia eta ixtexia, beste izenez), igitaia eta atxurra ere edesti-aurretik datozkigu, atxurra edo aitzurra *aitzez* egin oi zuten garaitik.

Eskulangintza bere azkenetan dabillen bezela dijoatz millaka urteetan emengo bizikera-nagusi izan diren aberezaintza, nekazaritza eta arrantzaren tankera edo eraenak; baita ibilbide eta burtalluak ere.

* Orrialdeak 8-14. Donostia: Editorial Auñamendi. 1970.

(1) *Euskalerri-ko Leen Gizona* (Donostia-n 1935-n urtean).

Lanbide oiek, Euskalerriko Neolitos-aroan batez ere, urduko esikeretan marreztuak ageri dire. Gure aldi ontako erainkinak ordea bere gain artu ditu eta aien egikerak ahantzerazten ari zaigu.

Erainkien edo makinen ondorioa aurrerapen ikusgarria degu. Bañan aldaketa onek bide-erdian utzi ditu leengo egikerai bizia eta mena ematen zizkioten giza-kutsu eta gogoetak.

Leengo sinismen eta asmo-nagusien etorkizuna ere berdintsu iduri zaigu: lagunen eta elkargoen zuzentasun eta gizabidea bere neurrian eutsi, indartu edo albizitzen zutenena, alegia. Aterbe bat zan; orain arresiak pitza, eror legi. Erriak ez du errurik, ez bazunek, zaindariak baño.

Aldakuntza sakona! Aldiaro berrian sartuak gaude. Neolitos-aroan gure arbasoak marreztu eta sortu zuten bizimoldeak XIX-n mende arte iraun zuen, egikera eta leen-puskak zuzen berekin. Geroztik, urte gutxien buru, ikusbira ori ganduak artua du.

Ez ditzagula ordea guztiak goibel ikus. Gure ondare ontan baditugu alor onak, ikasbide zuzenak eta gogai sakonak, an-emen, an-emen. Batez ere leengo lurraldea, giza-azkazi bat, edesti baten ezagunda, izkuntz berezia, geren oikundak eta erri-jakintzak ugari. Gañera, gazteria eta or multxo igikor eta biziak, eusko-izakerak jakitearren lana artu eta beren ezikera eta etorkizunaren oñarriak euskal-gaietan ikasi naiez dabiltzanak.

Ortarako Garmendia jaunaren liburu au ziñezkoa da eta guztioi on egingo diguna.

# PROLOGO

## del libro de Juan Garmendia Larrañaga *

Los modos de vida, las creencias y los usos colectivos que nos llegan por tradición forman el campo de estudio del etnógrafo. Son ellos un complejo instrumental al servicio del hombre, resultado de la reacción humana ante los problemas que nos plantea la necesidad de vivir y de explicar o interpretar el sentido de nuestra propia existencia y del mundo.

Para que sea completo su estudio, aun cuando sólo aspire a conocer, por ejemplo, un aspecto de este grupo humano particularmente destacado, como es el pueblo vasco, el investigador deberá realizar sondeos en diversos lugares de Vasconia.

En nuestro país, como en otros, donde los cambios de técnicas, de estilos, de comportamientos y de concepciones del mundo y del hombre se efectúan rápidamente desde fines del siglo pasado, el investigador de tales vigencias deberá darse prisa para alcanzar los postreros ecos del último período premaquinista.

Lo ha comprendido bien Juan Garmendia que, con espíritu observador, objetivo y bien orientado, ha alternado y convivido con muchos artesanos del país. Ahora ofrece al público el resultado de sus observaciones, que es sin du-

* Ps. 9-15, San Sebastián: Editorial Auñamendi, 1970.

da una muy valiosa contribución a los estudios etnográficos de nuestro pueblo. Ha llegado a tiempo para muchos de los temas que aborda y ha sabido registrar con fidelidad los diversos aspectos de la vida artesana.

Digo que llegó a tiempo, puesto que la artesanía rural desaparece a ojos vistas. Asistimos realmente a la agonía y muerte de muchos géneros de artesanía. El autor de este libro se ha hecho eco de este proceso y nos lo describe minuciosamente en las páginas que siguen.

Las vasijas de madera, productos de artesanos rurales, tienen aquí una larga tradición, seguramente desde los tiempos paleolíticos, según lo hice notar en otra ocasión (1). El *txali* o plato de madera que utilizaban los pastores y los carboneros hace cincuenta años era anterior al de metal, según nos lo prueba el nombre de éste, que es *burruntzali* «plato de hierro».

La fabricación de hachones y velillas para sepulturas está en estrecha relación con ciertas formas de culto de antepasados que llegaron hasta nosotros desde épocas prehistóricas y que ahora desaparecen rápidamente de nuestras iglesias.

El arado, en su forma más simple, ha venido fabricándose aquí por lo menos desde la edad del hierro. Existía ya en esta tierra, y no hay razón para pensar que procedía de otro país. Lo mismo cabe decir de la laya, del trillo, de la hoz y de la azada, cuyo nombre *aitzur* nos viene quizá de su primitivo material *aitz* «piedra».

Presenciamos, pues, el ocaso de la artesanía rural y comprobamos que es parecida la suerte que corren muchas formas de existencia que fueron básicas durante varios milenios. Así, los modos de vida ganadera, agrícola y pesquera y los medios de comunicación y de transporte, cuyas líneas generales y aun muchos de sus pormenores estaban trazados en la prehistoria pirenaica, han desaparecido ya o se hallan en franca regresión ante la irrupción del maquinismo. Este, que comprende afortunadamente nuevas y más adelantadas técnicas, viene en muchos casos privado del humanismo y del espíritu que diera sentido confortante a las viejas estructuras.

Lo mismo podemos decir de aquellas modalidades del pensamiento —creencias, explicación del mundo y del hombre, y adhesión a un ideal— que aseguraban hasta ahora el equilibrio moral y social de nuestro pueblo. Fueron un tiempo sólido albergue que ahora se cuartea, más por culpa de sus mentores que por desidia de los pueblos y de sus hombres.

En esta general transformación de la vida fácilmente podemos reconocer un profundo pasaje de una era histórica a otra totalmente nueva. Un tenor de vida que se perfiló durante el Neolítico, hace más de cinco mil años, se prolongó hasta fines del siglo XIX, conservando los rasgos fundamentales del cuadro primitivo y aun muchos detalles de un viejo contenido. Después, en pocas décadas, se ha ido desdibujando en amplias zonas de nuestra geografía.

No todo es pérdida. Quedan aún girones de nuestro haber tradicional, capa-

(1) *El hombre primitivo en el País Vasco* (San Sebastián, 1935).

ces de insuflar su espíritu a los nuevos elementos, materiales y formas que advienen. Existen todavía una tierra, un tipo de hombre, una lengua, un derecho, una conciencia histórica, un saber popular y una nueva generación cuyos sectores más dinámicos e inquietos buscan con afán en las esencias del pueblo vasco bases que den sentido a sus planes y a su visión del porvenir.

Trabajos como este de Juan Garmendia son una valiosa contribución en esta búsqueda de noticias y datos que nos conduzcan al conocimiento del alma de nuestro pueblo.